



BOOKTEGI



Geu,
"papá"
esaten
genuenok

Andoni
Arenaza



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ANDONI ARENAZA

geu, 'papá' esaten genuenok

HITZAURREA

Jose Mari Pastor

BEHIN BATEAN SANTURTZIN

Jose Mari Pastor

Etxea eta familia; eskola eta lagunak; aisialdia, jolasa eta kirola. Haurtzaroko gomutak ekarri dizkit gogora Andoni Arenazak idatzitako testuak. Eta, horrekin batera, euskararen eta euskal munduaren aurkikuntzaren prozesua. Urte haiei buruz osatu duen une eta testigantza bildumaz hezurmamitu du prozesu hori: antzinako bizipenak, sententzioak eta pasadizoak. Izan ere, umetako unibertso koloretsuak eta, aldi berean, sasoi hartako gizartearen argi-ilunek klisk egiten dute Andoniren deskribapen, hausnarketa eta balorazioetan. Eta kontakizunaren kutsu gizatiar umoretsuan.

Aukeratutako gertakari eta esenez baliatuta, atzera eramaten gaitu egileak, *back to the past*, behinolako oihal hitsa akuarela bizi bihurtzeko. Adibidez: etxeok esandakoa -eta isildutakoa-, eskolan bizi izandakoa -*cara al sol con la camisa nueva...* astelehen goiz eta ostiral arratsaldeetan; “*no os toquéis ahí abajo, niños*” esaldia, erlijio irakaslearen ahotik-, kalean ikusitakoa eta sumatutakoa -zergatik ahoskatzen du *aldeano* horrek hain modu bitxian, Chomin del Regatok legez?-. Halako osagaiak bildu ditu Andonik, gure herriaren identitatearen suspertzea eta nazio bereko kideak izatearen sentimenduaren esnatzea azaltzeko.

Txikitako eta gaztetako historia dugu *Geu*, “*papá*” esaten *genuenok* lana. Gure historia ez oso hurbila deskribatzen du -eta ez hain urruna: zer dira, bada, 40-50 urte gizateriaren historian?-. Ez da *Bronxeko historia bat* edo *Behin batean Amerikan* pelikuletako eszenategia. Beste film bat da, xumeagoa baina askoz gertuagoa, errealagoa. Maiteagoa: *Behin batean Santurtzin*. Garai soil bati emaniko begirada bizi eta tarteka malenkoniatsua nagusitzen da testuan. Ez iraganaren nostalgiak jotzen gaituelako, baizik eta atzera begirakoak denbora joana, hila, berpizten digulako eta, horrekin batera, orduko xalotasuna eta freskura.

Frankismoaren azken hamarkadari erreparoa eman dio idazleak. 1975ean hil zen diktadorea. Adin jakin bat daukagunok oroimenean zizelkatua dugu data hori, mugarria izan baitzen gure bizitzan. Lehena eta geroa, Francoren agintaldia eta horren ostekoa bereizi zizkigun, aro berri baten inguruan uztartzen diren egonezinak eta esperantzak, helduarorako bidean. Hori dela eta, guztiz

identifikatuta ikusi dut neure burua Andoniren lanean. Izan ere, nor bere garaiari lotua da eta gu, Andoni eta biok, garai horietako semeak gara. Eta Santurtzikoak.

Kronika zatikatua da *Geu, 'papá' esaten genuenok*, bidaia inizatiko bati buruzkoa, era batera edo bestera denok-edo gehienok- egin genuena. Batzuek hemengo perspektibatik hasi zuten bidaia. Andoniren kasua da: haren gurasoek Euskal Herrian zituzten sustraiak, eta hark Euskal Herria zuen erreferentzia, modu lausoan bazen ere. Beste batzuk, aldiz, ikuspegi urrutiago batetik abiatu ziren. Nire kasua da: gurasoak Espainia hegoaldetik etorri ziren Santurtzira.

Bidaia horri hainbat bidetatik ekin genion. 13-14 urterekin Academia Montianok argitaratutako euskarazko metodoa irakurri genuen. *Bihotz Gaztea* elkartearen inguruan euskaltzaletasuna bizi zen eta hara joaten hasi ginen. Euskararen munduan murgildu ahala euskaldunak-zaharrak eta berriak- ezagutu genituen eta Fadura tabernara joan ginen, Rakel zerbitzariarekin euskaraz egiteko. Leku urrunagoetara jo genuen: Bilboko Encarnación plazara joan, autobusa hartu, eta tira... Durangora edo Arrasatera, hango kaleetan euskaraz mintzatzen entzuteko eta euskaraz egiteko. Euskararen mundua *de Algorta hacia Guipúzcoa* hasten baitzen, Andoniren aitak esaten zuen moduan.

Zirrara eragin dit iraganeranzko kontakizunak. Narrazio (auto)biografiko honen hasiera eta amaiera lotzeak euskal mundurako bidaia inizatiko haren irudiak piztu ditu berriro nigan. Aukera eman dit gure herria nolakoa zen, nolakoa den eta nolakoa izango den edo izan litekeen hausnarketa egiteko. Gure bizi nahia hemen dagoela sentitzeko. Norberak egindako bidea eta bizi izandako eboluzioa oroitzeko. Nik ere, Andonik bezala, *papá* esaten nuelako.

GEU, 'PAPÁ' ESATEN GENUENOK

Gaua da. Etxean jaun eta jabe den isiltasuna zerbaitek urratu du. Erdi lotan egon arren, Maddiren deia (ala Uxuerena zen?) argi aditu dut: *"aitatxo, ura"*. Sukaldera joan, edalontzia erdiraino bete eta Maddiren logelara noa. Txupetea kendu, edalontzia bere bi eskutxoekin heldu, eta poliki-poliki edan du. Muxu bat eman, eta ondo tapatzearekin batera, ohi lez, *"egin lo, bihotza nerea"* esan diot, baina berak *"aitatxo, gelditu nirekin"* erantzun dit.

"Amesgaizto bat izango du buruan jirabiraka" pentsatu dut, eta ohearen ertzean eseri naiz; bere eskutxoa heltzearekin batera, ahopeka eta ahalik eta goxoen, *"Basoilarra"* abesten hasi natzaio. Segituan hasi da begiak biltzen. Logelako pertsianaren zirrikituetatik sartzen den argitasun xumea baliatuz, bere aurpegi politari begira jarri naiz.

Ohearen ertzean nengoela, galdera bat etorri zait gogora: *"...eta gure amak, gure aitak zer kantatzen zidaten, gau askotan, amantaldun otso hura, esku batean labana eta bestean sardexka zituena, nire ametsetan sartzen zenean?"* Ideiarik ez dut, ziur dakidan gauza bakarra honako hau da: aitari deitezekotan, *"papá"* ateratzen zela neure eztarri izututik. Izan ere, hamarkada batzuk ez dira alferrik pasa, ez horixe!

Bilboko ezkerrekoa, Santurtzi zehatzago, Arrantzaleen auzoa are zehatzago, gure haurtzaroko aberria, nortasun handiko Mamarigak, Serantes mendiko lehen aldapek (haur gehienok sumendi itzali bat zela sinetsita geunden!) eta itsasoak mugatuta. 60-70eko hamarkadetan ... Zer desberdin, zer urruti oroitzen dudan! Kaleak, etxeak, kotxeak, tabernak, janzkerak... Bitxia da, baina mundu hura zuri-beltzean gogoratzen dut, kate bakarra (UHF ez baitzen sekula ikusten) zuen telebista hura bezala. Auzoko telebista bakarra amonaren etxe azpiko tabernan zegoen, Etxeandiatarren Higarillo izeneko tabernan, eta hantxe biltzen ginen, astean behin, auzoko ume guztiok, arratsaldean ematen zuten programa hura ikusteko, non Locomotoro, Valentina, Capitán Tan eta Los Hermanos Malasombra begirik kendu gabe miresten genituen. Telebista haren bidez ere, Eurovision ezagutu genuen. Musika mailan, Eurovision baino zerbaite handiagorik, garrantzitsuagorik imajinatu ahal zen?

Oraindik gogoratzen dut nola, 1967ko Eurovision hartan, haserretu nintzen nire anaia Jose Manuelekin, Erresuma Batuak aurkeztu zuen kantariarekin (bai, oinutsik atera zen Sandy ez dakit zer hura) alderatuz, Raphaelek aukerarik txikiena ere ez zuela izango esan zuelako: ni Raphaelen fansutsua nintzen neurri berdintsuan, gure amona Vitori, Manolo Escobarren eta Angelillorena zen.

Giro hartan, “vascos” ginela esaten genuenean (harro esan ere!), edo “*del País Vasco*” ginela esatean, zehatz-mehatz, zer esan nahi genuen? Mataza gorri eta hori erraldoi hartatik kolore zehaztu gabeko hari mehe bezain hauskor batzuk baino ez ditut gogoratzen. Adibidez...

ESKOLAN

“ Cara al sol “ abestea zerbait mekanikoa zen. Mastan beti egoten zen “piper potoa“ paisaiaren beste elementu bat zen, besterik ez. Guztiok kantatzen genuen, guztiok ikusten genuen, baina ekainaren 19a heltzen zenean, guztiok barik, neuk neukan protagonismo-lipar bakarra. Irakasleak, niregana hurbildu, eta esaten zuen: “...zurea bai zortea, Bilboren askapena ospatzen dugun egun berean jaio zinelako!” Niretzat, Bilbao (munduan hiri handiagorik zegoela pentsa zitekeen?) eta “liberación” hitzek osatzen zuten kontu hark usain onik baino ezin zuen izan, eta ni poz-pozik, jakina! Irakasleak niri esandakoa etxean kontatu, eta gure aitaren aurpegian ez zen ezta irribarrerik txikiena ere marrazten, edo-eta ulertezina egiten zitzaidan keinu bat egiten zuen (parte onekoa ez, hori ziur!) Athleticen hiriaren liberazioaren urtemuga eta nire urtebetetzearen eguna bat etorri, eta nire aita poztu ez? halakorik!!! Gertaera insolito hark zekarren haritxoak Gabonetan izaten zuen segida. Esaterako...

ABENDUAREN 31KO AFARIAN

Garai hartako urte zaharreko gau-giroa iltzatuta dut akorduan, arrain zopa, arkume eta otarrainxken usaina iltzatuta ditudan moduan. Gauerdian, auzoko guztiok ateratzen ginen balkoietara, portuan zeuden itsasontzien (zenbat eta gehiago hobeto!) bozinek eta S.O.S salbek osatzen zuten ikuskizunari begira. Portutik zetorren hotsari, suzieren eta plater hautsien zaratarekin egiten genion lehia, bai, plater zaharrak errepidera botatzen zituen hainbat auzokidek!..

Portuko eta auzoko giroa lasaitu ahala, atzera guztiok berriro sukaldera. Telebistan, aurreko urteetako antzekoa izango zen gala horietako bat ematen zuten bitartean, nire interesgunea mahaian zegoen. Berez batere berbatia ez zen gizona, Txus aitona, gau hartan itxuraldatzen zen. Pare bat kopa “Sol y Sombra” eta “Farias” bat (“munduko pururik onena” bere hitzetan) lagun, gurean gau hartan baino entzuten ez zirenak mahairatzen ziren. Franco, Gernika, Artxanda, alemaniarak, mairuak, Jose Antonio Agirre, Santoña ...

Gure aitona hala hasiko zen: *“Rosa Luxemburgo batailoian alistatu nintzen, eta 37ko apirilean Gernika aldera joateko agindu ziguten, nire aitaren sorlekuaren aldera, hain zuzen ere. Hiri foralaren inguruko gaintxo batean kanpatuta, eta astelehena izanik, azokara joateko baimena eskatu genion sarjentuari, baina berak ezetz, gudan geundela eta erne egon beharra zegoela. Guda irabazita, anaia-ahizpatasuna nagusi izango zen mundu libertarioan, 2-3 orduko lan-jarduna eginez, munduaz gozatzeko nahi besteko denbora izango genuela esaten zigun. Guk, txakolin batzuk hartu eta baserrietatik jaisten ziren neskatxei begiratu batzuk bota baino ez genuen nahi; baina hantxe gelditu behar izan genuen, gogoz kontra, marmarka. Zeinek esango zigun bizitza osoan eskertu beharko geniola debeku hura? Arratsaldea zen. Zarata gaizto batek siestatik iratzarri ninduen, dendatik atera eta ... lepotik helduko ziguten nahi izan balute, hain baxu pasatzen ziren hegazkin alemaniar haiek! Gernika San Joan su erraldoi eta izugarri bat baino ez zen, hura triskantza, hura sarraskia! Eta gu hantxe, fusil zahar eta herdoildu haiekin... zer egin genezakeen munduko abiaziorik ahaltsuenaren kontra? Ezintasunetik jaiotako gure malko desesperatu haiek kanoikadak izan balira, di-da batean sunsituko genituen hiltzaile koldar haiek...”*

Laster lotuko zituen hura eta Artxandako bataila, non andazain gisa aritu zen; eta beti legez, Artxanda aipatu bezain laster, Jose Antonio Agirre aipatuko zuen, ekainaren 18 hartan, Bilboko Gran Vian, mendiaz gora zihoazen batailoiak despeditu zituena.

Une hartantxe isiltzearekin batera, begirada lausotzen zitzaion aitonari, eta lipar horretan amonaren txanda iristen zen: *“Txus, ohera!, zenbat aldiz esan behar dizut kontu zahar horiek ez aitatzeko umeen aurrean? Ulertzen didazu, ezta?”* Eta aitonak oherako bidea hartzen zuen. Laster ni ere joango nintzen ohera. Gernikako bonbardaketa, alemaniarrek, Rosa Luxemburgo, Artxandako bataila, erortzeaz zen Bilbo hura... Nik eskolan Historia zen gustukoena nuen gaia, ederki nekien nor izan zen Viriato, Isabel eta Fernando, Pelai... baina aitonak aipatzen zituen haiek? Rosa Luxenburgo, edo Jose Antonio hura, Bilboko Gran Vian heriotza ia ziurraren bila joan ziren gudari eta milizianoak despeditu zituena, ziur ez zirela eskolan ibiltzen genuen Alvarez Entziklopedian azaltzen. Jose Antonio bat, bai, ziur agertzen zela, baina Agirre, behintzat, ez zuen abizena, horretaz ziur nengoen. Gau magiko hartan azaleratzen zen mundu hura ulertu nahian harrapatzen ninduen urte berriko loak.

Baina mataza hartatik beste haritxo batzuk ere ateratzen ziren. Adibidez...

AMONAREN ETXEAN

Vitori eta Txus aitona-amonen etxea zen arren, guretzat beti izan zen amonaren etxea. Amona sendiaren zutabea zen. Scarlata O` Hara baten antzera ez dakit inoiz "*jainkoa lekuko, zin egiten dut ez dudala inoiz gehiago goserik pasatuko*" gisako aldarririk egingo zuen. Izan ere, gose eta hamaika nahigabek jotako haurtzaro eta gaztaroa egokitu baizitzaizkion amonari. Dena den, aldarri hori egin zein egin barik, ederki eraman zuen praktikara, baina bere bizitzaren ardatza bilakatu zen aldaketarekin, "*dut*" delakotik "*dugu*" delakora pasatuz. Izan ere, harrotasunez esaten zuen bezala, "*ezkondu ginenetik, ez guk, ez gure seme-alabek, ez genuen inoiz ezeren faltarik izan*"; ezta geroago etorri ginenok ere, amona maitea! Itsasotik arrain nahikorik iristen ez zenean (amona sardina-saltzailea eta aitona arrantzalea baitziren), tabakoaren txanda izaten zen. Hantxe dakusat amona, balkoian, largabista porturantz zuzenduta, itsasontzien tximinetako banderei so. Panamarra bazen, ziur hurrengo egunetan mugimendurik egongo zela herrian. Kontrabandista txiki ugari zegoen gure alderdian, eguneroko soldata kaxkarrak, nolabait, osatu nahian.

Gurera lau zapabost kartoiren bila, "el abuelo" deitzen genion agure bat etortzen zen. Elorriokoa zen. Txapel beltza. Gabardina luzea. Praka zarpail eta oinetako are zarpailagoak. Aitona haren bi ezaugarri gogoratzen ditut, zituen begi ezin urdinagoak eta azentua. "Z"ak, guk ahoskatzen genituen bezala, ezin ahoskatu harez gain, doinu goxo eta kantari hark txora-txora eginda lagatzen ninduen. Euskaraz hitz egiten zuen jenderik zegoela banekien, jakina! baina urrutiko zerbaitetzat jotzen nuen ("*los de la parte del vascuence*", "*eso de Algorta hacia Guipuzcoa*" gure aita zenak esaten zuen bezala), horrexegatik aitona hura dut gogoan ezagutu nuen lehenengo euskalduna irudikatzean.

Behin, gurean zegoela, trumoiak eta tximistak hasi ziren dantzan kanpoan. Gure amak "*menuda tormenta!*" esan zuen, eta orduan horixe galdetu nion nik, ea "tormenta" nola esaten zen euskaraz, eta berak "ekaitza" esan zuen. 12 urte-edo izango nituen, eta erantzunak txunditurik utzi ninduen, gure betiko "tormenta", "ekaitza" esaten zen Bilbotik kilometro batzuetara, eta nik, eta guk, ideia gorrikerik ez!... Harrigarria zen zinez, are gehiago eskolan zenbait hitz frantsesez irakasten zigutela kontutan izanda, eta ukazina zen Paris Elorrio baino urrutiago zegoela...

Batzuetan, tabako bila barik, beti harrera ona egiten zion etxera, sukalde epelera etortzen zen. Halakoetan, soinu txikia bizkarrean zuela etortzen zen. Katilu handi bat kafesne eta gailetak aterako genizkion, hitz aspertu bat egin eta bukaeran, ordain gisa edo, pieza batzuk joko zituen. Argi zegoen “belarriz”, eta ez oso ona, ikasitakoa zela: izan ere, gehienetan, pieza bukatu ondoren, hark zein zen esan arte, ez baikenion doinuari antzik ere hartzen. Etxetik joaten zenean, segituan jotzen nuen nik balkoira. Handik begiratzen nion nik, gabardina zarpail, begi urdin eta soinu txikiak osaturiko agure hari. Arrazoirik ez dakigula, gurera etortzeari utzi zion. Handik urte pare batera, Bilboko Alde zaharrean ikusi zutela esan ziguten, kale-kantoi batean soinu txikia jotzen, euripean. Handik gutxira, ziurren, puskatuko zen mataza handi hartatik ateratzen zen beste hari mehe, ihar hura.

Baina oroitzapenei tiraka, badago beste bat bereziki gogoratzen dudana. Esaterako...

EUSKARA GURE AUZORA ZETORRENEAN...

Agate Deuna bezpera zen egun hura. Urtero igotzen zen gure auzora talde bat. Bihotz Gaztea elkartetik zetozen. Kaiku berdeak, abarkak, makilak, txapelak, kriseilu bat ... Giro hotz eta ilun hartan kantari hasiko ziren. Kantatzen zuten hartaz ez nuen piperrik ere ulertzen, ez bazen azkeneko "eup" indartsu hura. Doinu horrekin, gure giroan beste bertsio bat kantatzen zen, eta hura bai, denok ulertzen genuen: "Cuando Agueda era pequeña, se comió un kilo de pan, y su madre como era tan buena, le dijo: hija come más"...

Martiriari dedikatutako kantua eta gero, txistua eta danbolina lagun, beste abesti batzuk kantatzen zituzten. Horietako bat, *Bat, bi, hiru, lau* delakoa zen. Hasierako zenbaki horiek gehienok ezagutzen genituen, baina ondorengo aditzean: "*euskaldunak irabazi, irabazi, aurrera!!!*", hasten nintzen nire interpretazioak egiten. "Aurrera" zer zen banekien, aitonari makina bat aldiz entzunda, arrantzan zebiltzatela, askotan jotzen zutelako Bermeoko edo Lekeitioko portuetara eta, han, bertako arrantzalei entzungo zieten. Baina..."irabazi?" Nik ez nuen "irabazi" ulertzen, "y La Basi" baizik. Gure auzokide batek Basilia zuen izena, baina denok La Basi esaten genion. Beraz, horixe pentsatzen nuen nik: emakume hura kantariak ere ezagutuko zutela, eta aipamentxo bat egin nahi ziotela, omemaldi gisa edo. Mundu hartatik gatoz...

Egun beste beste begi batzuekin ikusten dut, baina giro hartan, talde zuri-gorria zer zen gure adineko mutikoentzat...

ATHLETIC-EK JOKATZEN ZUENEAN

Baina ez edozein partida, ez, Athleticek Real Madril-en kontra jokatzen zuenean gertatzen zenaz ari naiz. Hura guretzat ez zen futbol-partida bat, hura askoz gehiago zen. Hura aitonak aipatzen zuen Artxandako batailaren errebantxa zen, edo Intxortak galdu genituenekoa; gure aitonak, behintzat, hala sentitzen zuen, eta nik oso ondo ulertu ez arren, baita ere! Ulertu ez dakit, baina sentitu...dedio!!!

Asteazken buruzuri bat zen, eta arrazoia ez dakidala, Liga jardunaldia zegoen. Athleticek Bernabeun jokatzen zuen, eta hantxe ziren Iribar, Saez, Aranguren, Etxebarria, Rojo anaiak ...geure mutilak, hara! Kanpoan iparrak jotzen zuen. Amonaren etxeko sukaldean porrusalda-usaina zen nagusi, eta leiho ondoan, kontrabandoz ekarritako tekla beltz-zuridun irrati handi hura piztu genuen.

Partida hasi berria zela, 40 metrotatik, Rojo II.ak zulatu zuen merengeen atea; lehenengo zatia amaitu baino lehen, nire idoloa zen Txetxu Rojok bigarrena egin zuen, hura zen hura!!! Bigarren zatia hasi bezain laster geure mutilen HIRUGARRENA!!! Hura poza, hura eldarnioa, hura jaia astegun buruzuri batetan, baina ez bakarrik gure etxean, oihuak, gorak eta bibak auzune osoan entzuten baitziren. Gure auzuneko guztiok Athleticzaleak ginen, hori amaren esne goxoarekin batera xurgatu baikenuen. 0-3 eta Madril-en!!! Madril-en, eta zehatzago, Real Madril-en futbol-zelaian! Aitonak faria piztu zuen, aitak ohikoa baino betexeago hartu zuen basokada ardoa, nire anaia eta biok barrez, oihuka... Amona, ama, izeko Maribi eta gure arreba Eguzkiñek txoroei bezala begiratzen ziguten, giroak kutsatuta, haiek ere urduri egon arren.

Ordu laurden bat baino ez zen gelditzen eta, garai hartako gure ustean, maltzurkeria guztiak gorpuzten zituen talde hark gol bat sartu zigun (Iribar ez zen perfektoa, perfekziora hurbiltzen bazen ere) Eraitza pixka bat itsusitu arren, ez zen oso kontu larria. Handik 2 minutura bigarrena egin ziguten, eta Athletic ez zen bere areatik ateratzen...

Ni izututa ez ezik, sasikatatoniko nengoen. Ezin nuen gehiago, amonaren logelara joan nintzen, eta ez entzuteagatik logelako atea itxi ez ezik, mendiruntz, Serantes-eruntz, jotzen zuen leihotik atera nuen burua; eta orduntxe izan zen, garrasi lazgarri batek auzune osoa zeharkatu zuen, ez dakit zein leihotatik edo balkoitatik atera zen, baina mezua oso argia zen: Inperioko hiriburuko taldeak 3.a sartu zigun. Partida minutu bat gehiago luzatu izan balitz, galdu egingo genuen, horretaz dudarik ez. 3-3!!! Hura amorrua, hura ezinegona, hura nahigabea, hura ezintasuna, hura ostia txarra...

Aitona ohera joan zen, El Pardotik deiren bat egon bide zela esaten zuen bitartean; gure aitak ere *“zer egingo dugu, bada, puntu bat Bernabeun ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, ez horixe!”* esanez, oherako bidean jarri zen; nire anaiak ezer esan barik, niri begiratzen zidan; eta ni? bukaerarik gabeko negarraldi batean. Amak ni kontsolatu nahiean, *“baina laztana, joko bat baino ez da; zure aitak baino hamaika bider gehiago irabazten duten 11 gizon baloi baten atzetik”*. Nik ezin nuen ezta hitz bat ere esan, poetak esan bezala: *“handia da ene mina, esan nahi eta ezina”*, bestela amari esango nion (hitz egiteko ahalmenaz gain, urteen poderioz hartzen den dialektika apurra bezain hanpatua 12 urte inguruko mutiko batek eduki izan balu): *“... joko bat? Zuk ez duzu ezer ulertzen, amatxo! Real Madrilen kontrako partida bakoitza Orreaga txiki bat da, aitonak aipatzen duen Artxandako errebantxa, mundu osotik fitxatutako jokalariez osatutako beste Armada garaitezin baten kontrako borroka; arbitro guztiak alde dituen taldearen kontrako dema epikoa; hori da aurrean duguna partida bakoitzean, eta ... gu zer gara? Futbol-talde bat? Ez, amatxo! Herri baten duintasun eta ohorea, kosta ahala kosta, defendatu behar dituen gudaroste bat”*. Hori eta gehiago esango nion xamurtasuna dohainik preziatuena zuen eta duen gure amari, baina une hartan negarrerako ahalmena baino ez nuen.

Oherantz nindoala, aitaren zurrungak entzun nituen. Nahigabetuta oheratuko zen, hori ziur, baina handik ordu batzuetara, egunero lez, goizaldeko 5ak aldean hasten zuen beste partida bat zuen zain. Barreiros zahar hartan, egunero Santurtzi-Gasteiz bi joan-etorri, Barazar portuan barrena egiten zuena. Gugatik hainbeste urtetan jokaturako partida haren aldapa elurtuek madrildarren 3. golak baino leku handiagoa lortua zuen, jada, bere gogo nekatuan (Eskerrik asko, aita! Ez dakit gure artean

zeunden bitartean, zuk merezi adina aldiz esan genizun, baina badaezpada ere, berriro esaten dizugu)

Ohean jada, partida bukatu zenetik hitz batere esan ez zuen nire anaiak zera bota zidan : *"eta bihar eskolara joan behar al dugu?"* Zer zegoen galdera horren azpian? Pereira eta "el cordoba", eskolan gure atzean eseritzen zirenak. Galiza eta Andaluziako semeak ziren, hurrenez hurren, baina beste asko bezala, niri betidanik sekulako amorrua eman didana, zaldi txapeldunaren aldekoak, Real Madrile amorratuak, alegia. Horixe esan nahi zuen nire anaiak, zein irriño maltzur, zein barre-hots, zein begirada isekari helduko zitzaizkigun atzeko pupitretik? Nekedura, iluntasuna eta hainbesteko negarraldiaren eraginez lokartzeaz nengoela, Thorren mailukada basatiak, ingudean jotzean, ateratzen duen soinu zorrotz eta latzaren parekoa eragin zuen nire gogoaren barnean *"baina... bihar eskolara joan behar al dugu?"* galdera lapidarioak, nire anaiak berriro bota zuenean. Tamalez, erantzuna ez zegoen haizean, baizik eta zenbait ordu geroago pupitreen arteko bitarte hartan...

Eta urteak pasatzearekin batera, beste hari bat agertu zen. Hari hura oso lanbrotuta ikusten nuen, geroko hamarkadetan gure bizitza, alde edo moldez, arlo askotan markatuko zuen arren, hari hura jada mataza handi bat bihurtu zenean. Nirekin batera jaio zela esan daiteke, baina oso oihartzun urrunak baino ez ziren iristen niregana. Adinekoen arteko elkarrizketatik seinale ahul batzuk iristen ziren, baita inoiz gure auzoko atarrietan nahiko ilunak ziren esku-orri batzuk ere.

ETArekin lotzen dudana lehen oroitzapen argia Eustakio Mendizabal, "Txikia"ren heriotza izan zen. Algortan izan zen, gure lagun baten aita Algortako geltokian zegoelako egun hartan, eta semearekin kontatu ziolako. *"Los del vascuence"* hasten ziren lekuan, hain zuzen ere. Nik 12 urte nituen, eta pentsatzen dut berehala ahaztuko nuela gertakizun hura. Baina hari hark berehala zeharkatu zuen itsasadarra. Handik hilabete batzuetara, telebistaren bidez enteratu ginen, nola Hondarribiako hondartza batean, poliziarekin izandako "tiroketa" batean, santurtziar gazte bat hilik suertatu zela. Roke zuen izena, Rokezu auzoan. Poeta izengoitiz. 21 urte baino ez zuen, eta haren ama gure amonaren laguna zen. Familiari aukera eman zioten semearen gorpua etxean izateko, eta gure amonak ikusteko aukera izan zuen. Ezin konta ahala balen aztarnak zituen. Badakit aurretik beste

heriotza batzuk egon zirela, hainbat koloretakoak, baina nik Roketxuren heriotzarekin izan nuen aurreneko kontaktua luzez iraungo zuen gatazkarekin.

Athletic, Franco, Gernika, Elorrioko aitona, erdaraz gaizki hitz egiten zuen nire birraitona, “el gorringo” del huevo, “los hondakines “ del vino, las "kimas" de los arboles, la carrera de "goitis" (gure etxeko erdaran esaten zen bezala), ekainaren 19a, Agirre abizena zuen beste Jose Antonio hura, ETA ... 1974,75,76 aldean, zentzu zehaztugabea zuten pieza horiek guztiak zerbait osatzen hasi ziren, eta nire izeko Benitak guda aurretik Galeuzkak San Mamesen antolatu zuen dantza-alardean parte hartu zuela jakin nuen, baita gure amona Mauriziak sarri bisitatzen zuela Galdameseko batzokia ere; eta Zuberoa zer zen eta non zegoen jakin nuen; eta “Euskalduntzen” izeneko liburua irentsi nuen; eta kontua ez zela espainiar txar bat nintzela (institutuan maiz, saltsa abertzaletan sartu berriak ginen batzuei, irakasle batzuek esaten zigutena), baizik eta euskalduna nintzela, besterik ez.

... Eta Benito Lertxundi (zure Zuberoa diskoagatik, joan ginen santurtziar gazte batzuk Jaurrietatik Mauleraino oinez, 1978ko udan), Mikel Laboa, Xabier Lete, Lurdes Iriondo, Imanol (zein esker txarrekoak izan ginen Imanolekin...) eta gainontzekoek lekutxo bat konkistatu zuten nire bihotzaren zolan; eta nire bizitzaren Rubikon bat zeharkatu nuen (zeharkaldi horretan, dialektika hanpatu eta mitifikatua neurtzen, eta futbol-partida batek duen garrantziari tamaina hartzen ere ikasiko nuen, Athletic-en eta Real Madril-en artekoa izanda ere, nahiz eta batzuetan... Futbolak ez al gaitu noizean behin haurtzarora itzultzen?)

“Aitatxo, berriro “Basoilarra”, eta ez joan, gelditu hemen, nirekin”. Handik minutu batzuetara Mari etorri da, eta ohera itzultzeko esan dit. Ohera joan aurretik, gauero bezala, lipar batean Maddi lokartuari begira gelditu gara, ondoren gauza berdina Uxurekin egiteko. Umeei begira, ondoren gu biok elkarri begira, eta ez dugu ezer esan behar, sentsazio hori, sentsazio horiek, hizkuntza eta kultura guztien gainetik baitaude; baina hori, beste istorio bat da.